BETI PREST?

Kalera irten eta zein handia 1_____ mundua! Mundu honetan, ordea, batzuek erakartzen gaituzte eta beste batzuek, ez. Zergatik?

Zeri erreparatzen diogu, norbaiti amua botatzeko? Antza, bai mutilek, bai neskek, ligatzeko lehen urratsetan, bikote-gaiaren fisikoari erreparatzen diogu. *"Bai ederra* aurrean 2_____ *mutila! Gustura egingo nituzke zirriak berarekin* ", esaten diogu belarrira lagunari. Baina, lehen momentuko lilura igaro ondoren, emakumeek, gizonek ez bezala, beste zerbait sakonagoa bilatzen omen dute. Topikoa dirudi, baina adituek hala 3_____, eta gure irakurleen artean eginiko inkestak ere hori berretsi 4_____.

1.	2.	3.	4.
a) da	**a) dugun**	a) diotela	**a) du**
b) dela	b) dugula	b) dioten	b) duela
c) den	c) dugu	**c) diote**	c) duenez
d) denik	d) dela	d) diotenez	d) duen

Adituek esaten 5_____ gizonezkoak itxurarekin itsutzen 6_____, eta ikerketen arabera, beraientzat, gorputzeko atal erakargarrienak ipurdia, titiak eta gorpuzkera 7____. Hau da, planta oneko emakumeen bila ibili ohi 8____. Emakumeak, oro har, ez dira ezpal berekoak. Hasieran, beraientzat ere itxura garrantzitsua 9_____ arren (begirada, gorputza, aurpegia...), neska baten bihotzean lekutxoa lortzeko, beste zerbait behar da. Zer bilatzen 10 neskek bikote-gaia aukeratzerakoan? Jantzia izatea, gozoa, atsegina, maitekorra, zintzoa, sentibera, dibertigarria... Zerrenda luzea da. Luzeegia, agian.

5.	6.	7.	8.
a) dutenaren arabera	a) diren	**a) dira**	a) direla
b) dutenez	b) direlako	b) diren	**b) dira**
c) dute	c) direnik	c) direla	c) diren
d) dutelarik	**d) direla**	d) direnez	d) direlako
9.	**10.**	**11.**	**12.**
a) da	a) duten	a) eta	**a) dira eta**
b) delako	b) dutela	b) **,** (koma bakarrik)	b) dira
c) denez	**c) dute**	**c) . (puntua bakarrik)**	c) direla
d) den	d) diote	d) **:** (bi puntu)	d) izateagatik

Udan ligatzeko aukera gehiago dago, beroaren eraginagatik edo 11_____ gainera, oporretan kezkak ahaztea eta ondo pasatzea gustatzen zaigu. Neska-mutilak arropa gutxirekin ibili ohi 12_____, zenbaitetan ikusten dugunak 'bero-bero' jartzen gaitu. Hona hemen ligatzeko zenbait gomendio 13_____ aukera gal ez dezazun.

- Natural izan. "Ikasten ala lanean ari zara?", "uste dut inoiz elkar ikusi dugula..." eta horrelako esaldiak modaz pasatu dira 14_____ atsegina izan zaitez eta kito.
- Umoretsua izan 15_____ ligatzeko armarik onenetakoa 16_____. Beraz, erabil ezazu.
- Ez izan tematia. Hobe da gauzak bere bidetik joaten uztea 17_____ ondo ateratzen bada ongi, eta bestela... badira beste hamaika aukera.
- Ez izan gozoegia. Ondo dago erromantikoa izatea 18_____ bikote-gaia afaltzera gonbidatzea, 19_____ ez ezazu gau osoa laudorio artean pasatu.
- Ez izan presarik. Ez da komeni presaka ibiltzea, ligatzeko denbora behar 20_____.

13.	14.	15.	16.
a) eta	a) **,** beraz	a) zaitez**.** Beraz	**a) da**
b) , (koma bakarrik)	b) beraz	b) **,** beraz	b) delako
c) **.** (puntua bakarrik)	c) **.** Eta beraz	**c) . Izan ere**	c) dela
d) **,** eta	**d) . (puntua bakarrik)**	d) **,** izan ere	d) dela eta
17.	**18.**	**19.**	**20.**
a) daitezen**,** eta	a) **,** baina	a) beraz	a) da
b) dadin**.**	b) **,** eta	**b) baina**	b) dela
c) **,** (koma bakarrik)	**c) eta**	c) eta	c) du
d) . (puntua bakarrik)	d) **.** (puntua bakarrik)	d) izan ere	**d) da eta**